

EUSKAL KULTURA ETA ERRENDERI



Danontzat lan ugari dagon Euskal Kultura baratz ontan, izan ditu gure erriak ainbat langille zintzo eta edozer gaietan.

Bertso, olerti, antzerti edo teatro, dantza, txistu ta abar, gai danetan eskeñi dizkio gure Errenderi'k Euskal Kultura'ri bere opariak, a palak bear bada, langille-erri bateri dago-kion bezela, baña lan zintzoak.

Bertsoak.—Gai ontan, «Xenpelar» goralgarria buru dala, izan dira ondoren jatorraskoak: «Telleitxiki», «Saiburu», «Txirrita» (Soñtezez errenderiarra ez ba zan ere gurea zala kontu), Zabaleta anaiak, eta abar. Gaur ere, Lizaso bat eta beste gazte batzuek ba ditugu an emenka bertso lanean gogotsu aritzen diranak.

Olerti (Poesia).—Arlo ontan, «Aita Errenderi» baten «Euskera'ren eriotza» eta «Enara gaxoa» nork aaztu? «Jau-tarkol»'en «Maite opari», «Zure oroiz» eta «Ator, maiteño». «Onintze»'ren «Agur, Eguzki!» eta abar.

Antzerti (Teatro).—Idazle bezela Erramon Illarramendi izan zan teatroaren asiera artan, lenengo pausoetan, lan polit batzuek egin zituna; gero Lizaso'k ere beste lan batzuek egin zitun.

Antzeshariak ere yayo askoak izanak ditugu, ez dezagun aaztu urte batean, Teodoro Goñi buru zutela, Euskal-Antzerki-sariketa edo konkurso batean gure erritarrak Gernika'n lenengo sari edo premia irabazi zutela.

Dantzak.—Orain berriro orritxo batean auxe irakurtzen nuen: «Izuetua gizon ospetsua izan da euskaldunen artean. Liburu ederrak idatzi zituan gipuzkoarren izaera kondairatuaz eta lur ontako dantza zarrak nola dantzatu bear ziran esanaz.

Zaldibitarra zan. Etsipena emanda zegola, ongi iltzeko laguntzera joanda, Lardizibal apaiza zeukan bere ondoan. Au ere zaldibitarra zan, euskeraz liburu ederrak idatzitako apaiz santua. Gaixoa negarrez ikusita:

—Juan Iñazio, galdetzen dio apaizak, zer dezu orrela negarrez jarduteko?

—Zer dedan esaten didazu, jauna? Zer dedan onen penatua egoteko...? Ni iltzen naizenean, zeñiek zaituko ditu gure antziñako dantzak Euskalerriko plazetan...?

Au irakurritakoan gure erriaz oroitu nintzan. Izuetua'k ainbat maite zituen dantza oiengatik zerbait egin ote degu?

Erantzuna baiezkoa da, ezpairik gabe. Beti ezagutu degu gure errian makildantzari edo ezpatadantzari talde bat gutxienez. Erakusten zaiatu izan diran batzuen izenaz ere oroi-

tzen gera: Eusebio Guruzeaga, Patxiku Salsamendi, Luis Arruabarrena, Irineo Errekalde, Jesus Luisa Esnaola (donostiarrei ezpatadantza erakutsi zien errenderiarra), Bitor Idiazabal (onek urte batean, amaika ezpatadantzari talde —ia eun lagun— eraman zitun Donosti'ko jai batera), Iñaki Errekalde, Agustin Iriberrri eta abar. Eta orain ere «Ereintza»'ko gazte jatorrak or ari dira nai dunari erakusten.

Txistu.—Txistu gaiean herriz zer esanik ez; beti izan du Errenderi'k banda ederra. Nor gure garaikoa dalarik ez da oroitzen laukote berdin gabe artaz: Lizaso, Lizardi, Errazkin eta Goñi.

Amaika txapeltza edo konkurso irabaziak, Bilbao'n batez ere.

Paris eta baita Mexico'n ere, euren txistu soñu alaia entzun eta txalotua izan zan.

Beñola, Maurice Ravel, ereslari bikañak, bere «Bolero» mundu zear zabaldu zun Ziburu'ko musikalarri aipatuak izan zun gertaera edo anekdota txiki bat gure erritarrekin.

1934'gn. udara'ko igande bat zan. Donibane Lohitzun'en (San Juan de Luz) euskal jai politak eratu zituzten eta ezpatadantza dantzera errenderiarrok joanak giñan. Gurekin batera erriko len aipatutako txistularri yayoak, Lizaso buru zutela.

Ducontenia Parkean gure saioa bukatu genun eta txistularien maisu zan gazte arek eman zun ondoren konzierto bikain bat; ango txaloak etziran berealakoan amaitu.

Entzuleen artean jende aundia zan, Japon'go printzipe gazte bi ere ikusi genitun, baita gorago aipatu degun Ravel ereslari goralgarria ere.

Gure Alejandro zana jetxi zanean gizon ori beregana aurreratu, hostekoa eman eta zorionduaz, bere txistua eskutan artuta, arriturik begiratuaz, esan zion: «Siniztu ere ezin leike, lau zuloako txistu onekin zuk eman dezun bezelako konzierturik eman leikenik.»

Au entzundakoan gure poza etzan nolanaikoa izan.

—o—o—

Eta azkenik, amaitzeko, beste zerbait esan nai nuke. Garai batean, gerra aurretik, izan zan Errenderi'n —bizi da oraindik— bertso zabalkunde an ikaragarria egin zuena; millaka bertso zaar eta berri irarkol edo inprenta bidez zabaldu zituana: Makazaga jauna. Bertsozale guztien esker ona merezi du gizon onetxek. Ez ote du omenalditxo bat merezi?

AÑARBE

MUNICIPALERIAS

Se lo hemos oído decir hace poco tiempo a un renteriano que ha visto setenta años de vida municipal.

El último alcalde de Rentería que usó chistera en las ceremonias oficiales, fue don Cosme Echeverría.

El único que se cubría con sombrero bombín: don Nicasio Aguirreurreta.

El primero en llevar la democrática boina: don Sixto Huerta, y por último, quien cambió la boina negra por la colorada, don Carmelo Recalde.